

Yellowstone eta Yosemite, munduko lehen Parke Nazionalak

Kepa Altonaga*

Umetan hasi eta luzaro Yellowstone parke nazionala Yogi eta Boo-boo hartzen barrabaskerien kokagunea dela sinistuta egon eta gero, halako batean munduko lehendabiziko parke nazionala izatea suertatu zitzaiola irakurri genuen, izendapen ofiziala noizkoa eta 1872koa zelarik. Okerreko ideia bat eduki dugu horrekin ere, kontserbazionismo goiztiarraren eragina ikusi nahi izan dugu-eta Estatu Batuetako parke nazionalen izendapenaren abiapuntuan. Eta, ez dago horrelakorik. Bestelakoa izan zen kontua: Estatu Batuetako lehen parkeen bultzatzaile nagusia nazionalismoa izan da, hurrengo paragrafoetan egiaztatu ahal izango duzunez.

Nortasun berriaren bila

Estatu Batuetako lehen parke nazionalak ezarri zirenean, ingurugiroaren babesa izan zen, seguruenez, preserbazionisten helbururik garrantzi gutxienekoa. Parke nazionalaren kontzepturako hasiera bateko eragilea, ingurugiroaren babesa barik, aspaldiko denboretako tradizio mardulen nahia izan zen, nahi ikaragarria, edo hobeto, nahi horren iraupena. Independentziaren ostean estatubatuarrek lorpen kultural ospetsurik eza sufritu zuten hamar-kada luzeetan zehar. Izan ere, Europako estatu nagusien jatorria antzinatean sustraituta zegoen, eta, hori dela-eta, estatu europarrak ondare artistiko eta



K. Nuñez-Betelu

“Estatu Batuetako lehen parke nazionalak ezarri zirenean, ingurugiroaren babesa izan zen, seguruenez, preserbazionisten helbururik garrantzi gutxienekoa.”

literario luze eta oparoaren jabe bilakatu ziren, Estatu Batuak ez bezala. Nolabait, iraganeko oroigarrien gabeziak umezurtz utzi zituen intelektual amerikarrak, hau da, bertako paisajeak gaztelubakoak edota hiriak katedralbakoak izatean nortasun kultural kanonikorik gabe gelditu ziren. Eta horrelako gabezien inguruko Mundu Zaharrekoen hamaika ziriei erantzuteko, pentsalari estatubatuarrek Mendebalde Urruneko, *Far West*eko, lurralde miresgarriak aukeratu zituzten, gizakiak utzitako aztarnen ordezkoko gisa. Hau da, paisaje harrigarri horren adinbaketasuna izan zen estatu eratu berriaren iraunkortasun eta egonkortasunaren

ikurra, ez baitzegoen iraganeko inolako lorpen kulturalik erakusteko.

Naturarenganako fedea independentziarekin batera hasi zen, XVIII. mendeko amaierarekin batera, handitasun nazionala nola edo hala aldarrikatu guran. Britainia Handitik askatuta, kultura europarrarekiko loturak ere hautsi ziren, jakina, burujabetasun politikoa nahigabeko ondorio modura, eta ordutik aurrera Estatu Batuak ja ez zeukaten Mendebaldeko zibilizazioko lorpenak erreklamaterik inperio britainiarreko kide ziren bezainbatean.

Ezin zieten entzungor egin, esate baterako, Sydney Smith elizgizon ingelesak 1820an popularizatutako adierazpeni: "Munduko lau kantoietan, nork irakurtzen du liburu amerikar bat? edo nor doa antzezlan amerikar batera? edo nork begiratzen du margolan edo estatua amerikar bat?"

Ezintasun kezkarri hori ikusita, abertzale estatubatuarrek ahaleginu egin ziren euron buruak konbentzitzeko, Estatu Batuak aginduta zeukaten etorkizun handi-loriosoaz. Alabaina, zalantza ez zen ezabatu, batik bat pentsalariak gogoan hartzen zutenean ea kultura amerikarrak bizirik iraun zezakeen Europatik deslai. Eta bertako artista eta idazleen lanak ezdeusak zirelarik, abertzaleek naturarenganatz jo zuten, alternatiba bideragarri bakarraren bila.

Esate baterako, dagoeneko 1784 urtean Thomas Jefferson-ek, Estatu Batue-

tako Independentzi deklarazioaren egilea eta geroago presidentea (1801-09) paleontologoa izateaz gainera, paisaje amerikarreko makina bat gune hautatu zituen, ingurune horiek ezin hobeak zirelakoan etorkizuneko lorpen nazionalerako; harro-harro zegoen Virginia estatuko bazter batzuek, kasurako, Potomac ibaiko zintzurarekin.

Baina, nazionalistatik adoretuenak ere ez zeuden nahikoa itsu, begi-bistakoak ziren distortsioak ez sumatzeko beste. Eta Potomac ibaiaren xarma guztiak nekez ahantzarazi zitzakeen Rhin edota Danubioren balioak. Zoritxarrez abertzale estatubatuarrentzat, zirudienez naturak ez zuen biderik eskaini Europa eta Estatu Batuak elkarrengandik argiro bereizteko. Areago, Mundu Berriko paisajeak historiabakoak ziren, beren kulturarako arrokez, ur-jauziez edota ibaiez gainera eranskin bihotz-altxagarriak nahi zituztenentzat. Ildo horretatik, Washington Irving idazleak (*The Alhambra*, 1832) 1819an maila berean jarri zituen Europa eta Estatu Batuetako paisajeak, behintzat begi-inpaktuari dagozkiola. Jakina, horrek ez zuen baretu paisaje amerikarra balio kultural eta izpiritua-lekin batzeko borrokatzen zirenen ondoeza.

Geroago, 1850. urte aldera, James Fenimore Cooper idazleak (*The Last of the Mohicans*, 1826) paisaje europarraren nagusitasuna aitortu zuen, batez

PARKEAK

Niagara Falls

Tx. Petuya



Tx. Petuya



Tx. Petuya



Inkesten arabera, estatubatuarren naturgune gogokoenen zerrendan Niagara Falls hirugarrenak dira, Grand Canyon eta Yellowstone-ren atzetik. Alabaina, azken biokin konparatuta, Niagara ur-jauziak guztiz "programatuta" daude. Argindarraren kariatz, ur-emariaren herena turbinetara desbideratzen da eguargiz, eta gauzez (beheko argazkia), bisitari-kopuru minimoa dagoela, emariaren hiru laurdenak doaz turbinetara, ur-jauziak saihestuz: ur-jauziak "piztu" eta "amatatu" egiten dituzte nolabait. Dena dela, luzea da Niagara ur-jauziak pairatutako gehiegikerien historia, eta dagoeneko 1830erako, txerpolari, arrakero eta espekulatuzaileen eskutik mota guztietako bidegabekeriak gertatu ziren bertan. Ezin da ahaztu urtean 40.000 bisitari hurbiltzen zirela 1840ko hamarkadan.

Tx. Petuya



ere "iraganaren lorratza" zeukala-eta. Cooper-en idazkietan ikus daitekeen, ez zuen arrakasta handiegirik erdietsi nortasun kulturalaren oinarri gisa natura erabiltzeak. Ordurarteko erretolika gorabehera, intelektual amerikarrak eurak ere ez zeuden oso konbentzitututa Estatu Batuetako parajeek me-rezitako aparteko ezagutzaz. Eta iraganarekiko loturarik ezean, paisajeak nabarmendu egiten zuten, neurri batean, nazioaren kultur urritasuna.

Gogoaren aurka nor-eta geografia temosoza zegoen. Izatez, XIX. mendeko erdialderarte Estatu Batuek egungo azaleraren herena ukan zuten, eta, Appalache mendiak eta Niagara ur-jauziak salbu, ez zeukaten bestelako ezer benetan punta-puntakorik. Horrela ba, 1850. urtea baino lehenago, estatubatuarrek Niagarako jauzien ikusgarritasuna aldarrikatzen zuten, eta europar askok ere onartu egiten zuten ez zegoela parekorik Mundu Zaharrean. Niagara oso ospetsua zen Europan. Esate baterako, Pio Barojak berak, batez ere 1830.eko Uztaritzen kokatu duen *La veleta de Gastizar* eleberrian, bertako benta bat deskribatzen du; ba, ostatu horretako apaingarririk deigarriena, dinoskunez, jangelako hormetako papera zen, Niagarako ur-jauzia naturalean irudikatuta zeukana.

Baina, gauzak aldatu egin ziren nabarmenki mendebalderanzko hedapenarekin batera. Kontinenteko lurralderik miresgarrienak bertan eskuratu zituzten Estatu Batuek 1846 eta 1848 bitartean, besteak beste Mendi Harritsuak eta Isurialde Pazifikoa, eta horrela ebartzi egin zen nazionalista kulturzaleen dilema. Urruneko Mendebaldean, *Far Westean*, ez zegoen arkitektura erakusgarririk eta ez beste inolako arterik ere, baina horrek ez zituen nazionalista kulturzaleak gogaitu, Ekialdean egin zuten bezala. Jakina, Urruneko Mendebaldeko basatasuna erraz barka zitekeen, munduan parekorik gabeko bertako bazterrek ahantzarazita.

Eta, zer esanik ez, natura bidezko nortasun kulturalerako deiari Urruneko Mendebaldeko bazterrek gehitu zitzaizkionean, baratza nahikoa ongarriztatuta zegoen parke nazionalaren ideiarako.

Far Westeko katedralak

Urruneko Mendebaldean hondatu gabeko natura ederresteko aukera ez ezik, natura hori ikutu barik preserbatzekoa ere bazegoen. Ekialdeko naturgune ikusgarriak, esaterako Niagara ur-jauziak, zorritzarez aspaldian zeuden jabego pribatuaren esku, eta era guztietako gehiegikeriak nozitu zituzten, berehalako etekinaren bila. Urruneko Mendebaldean, oster, jabea artean gobernu federala zen, eta alde horretatik nazionalismo kulturalak bazeukan non frogatu bere zintzotasuna. Kontua hezurmamitu egin zen nolabait, hurrenez hurren 1851 eta 1852an Yosemite Valley eta Sierra Redwoods naturgune miresgarriak idoro zirenean.

Naturgune horien azterketarekin konfidantza berria lortu zen Estatu Batuetan, ez baitzegoen beste inon maila horretako bazter miragarrik. Areago, Sierra Redwoods-eko sekuoia zahar-erraldoiek ekarri zuten kontsolamendua, iragan amerikar luzearen falta betetzera zetorren, burmuinetan behin-

tzat: Estatu Batuetako antzinakotasuna Europakoa baino lehenagokoa izan behar zen, zeren, "sekuoia aro kristaua baino lehen hasi ziren hazten" eta, izatez, "zuhaitzok tamaina dezentekoak ziren jadanik Salomonek Jerusalemeko tenplua eraikitzea agindu zuenerako".

Ekarri ditugun aipamenok gaur egungo ikuspegitik hutsalak badirudite ere, orduko testuinguruan munta handiko beharizan intelektuala bete zuten. Izan ere, ia ehun urtetan lehen aldian, estatubatuarrek konfidantzaz argudiatu ahal zutela bazeukatela balioko zer-edo-zer munduko kulturari eskaintzeko. Nahiz eta Europako gaztelu, katedral, abatetxe eta enparauak inoiz ezin izango ziren eklipsatu, Estatu Batuek bazeuzkaten "earth monuments" eta baso erraldoiak, eta horrela izanik, naturgune miresgarri horiek konpentsatu zituzten bai hiri zaharren gabezia, bai tradizio aristokratikoen eskasia, eta bai Mundu Zaharraren lorpen guztien era horretako oroigarriak.


Hau da, ikusten ari garenez, parke nazionalen abiapuntuko asmoan monumentalismoa zegoen, alegia, "txokorik eijerrenak" ganoraz zainduta mantentzeko xedea. Alabaina, bazter miresgarriaz gainera animalia basatiak ere babesarako duinak zirela, parke nazionalen entusiastek ez zuten oso berandu arte onetsi, dagoeneko hogeigarren mendea nahikoa aurreratuta egon arte; izan ere, 1934an onartutako Floridako Everglades National Park izan zen lehena horrelako ardura kontserbazionistarekin gauzatu zena, 1947an izendatu zelarik.

Floridako Everglades National Park-eko topografia ez da monumentalak. Lehen aldiz parke batek ez du mendi zorabiagarrik, ez arroila sakonik, ez ur-jauzi lurrinsurik, baizik eta belar-zingira monotono-aspergarria, non aligatorea baita biztanlerik ezagunena.

Yosemite National Park



Gaur eguneko Yosemite National Park-ek 3.080 km² azalera du. Yosemite Valley eta sekuoia erraldoiak (eurotariko zaharrenak 2.700 urte ei ditu) parkeko hego-mendebaldean daude. Gune hori, izatez, orain 10.000 urte glaziar batek itxuratutako harana da; bertan ikus daitezke parkeko txokorik ezagunenak, kasurako Yosemite ur-jauzia (altueraz 740 m dituen) eta *El Capitan* deritzon granitozko monolito izugarria, beheko argazkiko 900 m-ko horma zut hori.



PARKEAK

Nolanahi, bertako landare eta animalien babesa izan zen parkearen justifikaziorako arrazoi nagusia.

Monumentalismoaren bidean, dena dela, aurrerapauso galanta izan zen paisajearen ederrespenetik paisajearen preserbaziora igarotzea, eta horretan garrantzi berezia eduki zuten Yosemite-k eta Sierra Redwoods-ek. Izan ere, bazirudien bai batari eta bai besteari jabe pribatuetara pasatzea fortunatu

gulartasuna eztaba daezina izanik ere. Hortaz, Estatu Batuek Niagaran alferrik galdutako aukera zeukatzen berriro ere.

Kezka kulturalaren kristalizazioa parke nazionalaren ideia gauzatu 1864ko neguan jazo zen. Yosemite Valley eta Sierra Redwoods-eko aferak akullatuta, kaliforniar-talde txiki batek bertako senadoreetariko bat gogatu zuen, legegaija proposa zezan txoko miresgarri

rrogei milia karratu. Eta antzeko murrizketa aplikatu zitzaion parkeko hegoaldeko guneari, non, zenbat-eta lau milia karratu besterik ez baitziren kontsideratu. Begi-bistakoa denez, ezarritako muga horiek muzin egin zioten lurraldeko sare ekologikoari, egia bada ere "ekologia" terminoa artean ezezaguna zela. Nolanahi, ezin argiago ikus daiteke monumentalismoa izan zela bultzagilea Yosemite Valley parkeko 1864. urteko akta lortzeko, eta ez ingurugiroarekiko inolako kezka.

Izatez, Yosemite izan zen lehen parke nazionala, formalki horrela izan ez arren; parke nazionalaren izaera juridikoa geroago etorriko zitzaion, 1890ean, Kaliforniako estatuak Yosemite harana eta zuhaitz erraldoiak gobernu federalari laga zizkionean. Bestalde, parke nazionalarena kontzeptu kulturala zen erabat, izan ere, urte haietan ez baitzegoen imajinatzerik naturgune horien potentzial turistikoa norainokoa litzatekeen. Hau da, turismoa benetako posibilitate bilakatu ez den bitartean parke nazionalak zeregin kulturala bete dute.

Sequoia National Park

K. Nuñez-Betelu



Sequoia National Park (1.628 km²) Yosemite-tik hurbil dago, hegoalderantz. Bertan aurkitzen da argazkiko General Sherman deritzon sekouia erraldoia, munduko bizidunik handiena esan ohi denez: enborrak 11,5 m-ko perimetroa du lur-mailan (beheko argazkia), eta 1.385 tonako pisua kalkulatu zaio. Parkeko sekouia erraldoiak *Sequoiadendrum giganteum* espeziekoak dira; alabaina, sekouiarik garaienak, lirainagoak badira ere, *Sequoia sempervirens* espeziekoak dira, eta Kaliforniako iparraldean aurki daitezke, itsaso inguruan.

K. Nuñez-Betelu



zitzaiela. Eta horrek dilema handia zekarren aldean. Baldin eta ustiatzaile partikularrei bidea libre uzten bazitzairen Yosemite Valley eta Sierra Redwoods bahitzeko, orduan, berehalakokan zentzubako bilaka zitekeen naturgune horietan funtsaturiko edozein sinbolismo kultural. Izatez, ordurako Niagara ur-jauziek frogatuta utzi zuten norainoko burugabekeria zen, nazioaren aterpe kulturala etekin indibidualaren mesedeetara sakrifikatutako naturguneetan bilatzea, berorien sin-

biak abusu pribatuetatik babesteko: naturguneok "erabilera publikorako, oporleku eta jostaketarako" izan behar zuketena, eta, areago, "inalienable forever" ("betirako besterenezinak").

Indarrean jarri nahi zen parke nazionalaren helburua, ezarri zitzaizkion mugek argiro adierazi bezala, zeharo eszenikoa izan zen, soilik txoko ikusgarrienak besarkatuz. Bakar-bakarrik Yosemite Valley eta inguruko tontorrak sartu ziren, hau da, denetara be-

Monumentalismoa behin eta berriro

Ikusi dugunez, Yosemite izan zen parke nazionalaren ideia garatzeko abagunea opatsi zuen naturgune monumental ederra. Alabaina, iturri guztietan Wyoming-eko Yellowstone National Park agertzen da beti munduko lehen parke nazionalaren ohorearekin, izan ere, bertan, 1872an bateratu baitziren parke nazionalaren ideia eta zegokion euskarri juridiko federala.

Yosemite-ren tamainarekin alderatuta, Yellowstone ikaragarri handia zen: 3.300 milia karratu baino gehiago, eta den-denak gobernu federalaren jurisdikziopekoak hasieratik bertatik. Baina, zabaltasun horrek kasu honetan ere ez zeukan inolako zerikusirik parkearen bultzatzaileak ekosistema osoa babestearen abantailez konbentzitutako egotearekin. Zabaltasun itzel hori, artean ezagutu gabeko monumentu natural miresgarriak alde aurretik ondo gobernatuta mantentzeko arduratik etorri zen, eta ez, ostera, espezieak geritzeko guraritik. Hau da,



Yellowstone National Park

Gaur eguneko Yellowstone National Park-ek 8.990 km² ditu, hau da, Nafarroa baino pixka bat txikiagoa da, eta Mendi Harritsuen (= Rocky Mountains) erdigunean dago, besteak beste berrehun bat geyser eta makina bat fenomeno geotermal besarkatu dituelarik. Bestalde, basa bizidunen babesleku galanta da, eta bertan polito bizi dira hartz arrea (Yogi eta Boo-boo adibidez), hartz beltza, bisontea, uapiti oreina, altzea, etab.

K. Nuñez-Betelu




K. Nuñez-Betelu



Wyoming-eko bazter urrun eta eder hartako geyser, ur-jauzi, arroila eta bestelakoek altxor kultural baten erakargarritasuna zeukaten, baina, izatez, ez zegoen informazio zehatz askorik lurralde hartaz, soilik, tranperero eta urre-biltzaileen kontakizun txolinak. Eta horrela izanik, barruti zabal-zabalari ezarri zitzaion parke nazionalaren etiketa, zerbait interesgarri hortik kanpo uzteko beldurrez. Baina, inguru hari buruzko orduko ezagutza hobeia izan balitz, batik bat fenomeno natural ikusgarrienak batera-edo zeudela, pro-

babilitate osoz Yellowstone askoz txikiagoa zatekeen, "txokorik eijerrenak" estu-estu zedarrituta, Yosemite bezalaxe.

Beraz, ba, munduko lehen parke nazionalaren zabaltasuna eta egungo egunean maiz erabiltzen diren parke idealaren tamainari buruzko ideiak bat badatoz ere, antz hori nahi gabekoa izan da erabat. Izan ere, Estatu Batuetako geroagoko parke nazionalak nekez izango dira hain handiak. Kontuak kontu eta laburbilduz, Estatu Batuetako parke nazionalak monu-

mentalismoaren ondorio dira, abiapuntuan nazionalismo kulturala zegoelarik, eta osteko kontserbazionismoa, bera ere, monumentalismo horren albo-produktutzat jo liteke. 

* Biologoa, UEKidea eta EHUko irakaslea

Gaian sakontzeko
 RUNTE, A. 1987. *National Parks. The American Experience.* University of Nebraska Press. 335 or.